

Panel informatiboak herrian zehar, herriko ekitaldien erakusleiho

- **Udalak dozena pasa panel kokatu ditu herrian, iragarki ofizialez gain, herriko talde eta eragileek eure ekimenak iragartzeko balia ditzaten**
- **Helburu bikoitza du ekimenak: herriko ekitaldien erakusleiho izatea eta herriko txukuntasuna**

Andoainen, 24-09-18.- Udalak, Zerbitzuen saileko lan-taldearen bitartez, 13 panel kokatu ditu herrian zehar azken egunetan; panel horietan, Udaleko iragarki ofizialak jartzeaz gain, herriko talde, eragile zein norbanakok euren ekimenak iragartzeko balia ditzakete.

Herriaren hedadura ikusita, herriaren luze-zabala hartzen ahalegindu da Udala, informazioa herriko txoko guztietara heldu dadin. Edonola, Udalak ez du baztertzeko epe laburrean panel gehiago kokatzea, beharrak hala agintzen badu.

Ekimen honekin helburu bikoitza lortu nahi luke Udalak: batetik, herritarrek, eragileek eta herriko taldeek espazio egokia eta erreferentziala izatea antolatzen dituzten ekimenen zabalkundea egiteko. Eta bigarrenik, herriko kaleen eta hormen txukuntasuna ahalbidetzea.

Udalak herritarrak animatu nahi ditu panel informatibo hauen erabilera egin dezaten.